

SAREEN SAREA 2030 AGENDAREN ETA GJHen AURREAN

Funtsezko **10** gako

2030 Agenda errealitate eta lurralde bakoitzean interpretatu daitekeen eta interpretatu behar den tresna da. Erakunde publikoei, enpresei, elkarteei eta herritar bakoitzari interpelatzen dio. Tresna eraginkor eta erabilgarria da Euskadiko gizartearentzat, garapenerako politiken koherentzia lortzen laguntzen baitu. **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek (GJH)** gure gizartea arautzen duten sistemen eraldaketa handinahiak eskatzen dituzte eta politikarien eta esku hartzen duten alde guztien borondatea eta ekintzak behar dira horretarako.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

www.sareensarea.eus

SAREEN SAREA 2030 AGENDAREN ETA GJHen AURREAN

Funtsezko **10** gako

Euskadiko Hirugarren **Sektore Soziala** ez dago 2030 Agendaren deialditik kanpo. Bere esentzian dago modu kolektiboan gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa, eta egun murgilduta gauden garapen-ereduarekin kritikoagoa dena eraikitze borondate sendoa.

GJHak aukera bat dira planetaren egungo egiturak dituen erronka ekosozialei aurre egiteko beharrezkoak diren **eraldaketa sozial, ekonomiko eta politiko**en eraldaketak ahalbidetzen

dituzten eragile desberdinen arteko agendak adosteko.

Sareen Sareak **Gizarte eraldaketarako eta Agenda 2030erako Eragile Anitzeko Foroan** hartzen du parte, gizarte-eredu gizatiarragoa lortzeko, gure lurraldean beharrezkoak diren aliantzak eratuz eta Agenda 2030en inguruko herritarren inplikaziorako bideak ezarriz.

Sareen Saretik Agenda 2030en eta GJHen xehetasunen inguruko gogoeta lasaia, bateratua eta parte-hartzailea sustatu dugu.



2015eko irailean, munduko estatu buruek Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 onartu zuten nazio Batuen Erakundean. Agenda horren xedea garapenaren arloko datozen urteetarako nazioarteko jarraibideak ezartzea da, pobreziaarekin amaitu, talde zaurgarriak artatu eta planeta babestu eta kontserbatzeko lan egiteko oinarri sendoa izateko, xede eta adierazle zehatzen bidez.



Prozesuan zehar, ikasteko eta lankidetzarako eremuak sortzea sustatu dugu, bai eta agenda 2030en eta GJHen inguruko parte-hartzea ere.

Prozesu horren ostean, **ikuspegi estrategiko bateratua** eta gizarte-erakundeetako lan-ildoak GJHetara derrigorrean bideratzeko ekarpena lortu ditugu, bai eta Agenda 2030 hedatzekoa ere, geuretzat hartuz eta, ondorioz, **euskal gizarte**an horren inguruko **eragina sortuz**.

Egindako prozesua laburbildu eta gure lurraldeko Agenda handinahi honen helburuak lortzeko garrantzitsuak diren gakoak eskaintzen

dituen dokumentua osatu dugu, beste toki batzuetako eraldaketan ere lagunduz.

Modu batera edo bestera GJHetan eta Agenda 2030en finkatutako xedeak lortzea sustatzen duten **400 ekintza baino gehiago** aitortu ditugu.

Ekintza horiekin erakundeek haiei dagozkien xedeetara bideratzen dira eta guztiz bat egiten dute agenda 2030en islatzen diren helburuekin.



Badakigu GJHak lortzeko eraldaketa eta trantsizio kultural, sozial, politiko eta ekonomiko sakonak sustatu behar direla. Ezin gara batzuetan elkarren arteko loturarik ez duten aldaketa txikiekin eta Agenda 2030k jorratu nahi dituen arazo larriei aurre egiten ez dietenekin konformatu.



***PERTSONAK ARDATZ DITUEN
2030 AGENDA***

Inor atzean ez uzteko premisatik abiatzen gara, eta, beraz, Euskadin 2030 Agenda ezartzeak **politika publikoak bultzatu** behar ditu inklusio eta irisgarritasun unibertsalerako, pertsonen bizitza autonomia luzatzeko, pertsonen eta haien ingurunearen zerbitzura dagoen ekonomia sozial eta solidarioa garatzeko, eta pertsona guztientzako aukeraberdintasuna lortzeko, aniztasunari balioa emanez.





EUSKADI: MUNDU MAILAKO GARAPEN JASANGARRIAREKIN BAT

2030 Agendak tokiko ikuspegitik eskatzen duen eraldaketa koherentea izan behar da euskal eragile guztien nazioarteko ekintzarekin.

Garapenerako lankidetzaren, ekintza publikoaren eta euskal enpresen nazioarteko ekintzaren bidez, beste lurralde batzuen **eraldaketa jasangarrian lankidetzan aritzea lortu behar dugu**, planeta osoko pertsonak eta natura-ingurunea erdigunean jarritz.





***HIRUGARREN SEKTOREAREN
PARTAIDETZA ETA KOGOBERNANTZA***

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sare gisa, zuzenean interpelatuta sentitzen gara ekintzarako deialdi unibertsal honetan. Denbora luzea daramagu 2030 Agendak proposatutako hainbat erronkatan lanean, esperientzia pilatzen eta egiten jakiten, errealitateak diagnostikatzen eta politikak, programak eta ekintzak proposatzen.

Jarrera proaktiboa eta parte-hartzailea izan behar dugu, eragile giltzarria eta bultzatzailea bezala jokatzuz. Gure lurraldean 2030 Agenda ezartzea arrakastatsua izan dadin zilegizko interesa dugu.



2030 AGENDA: EREDU EKONOMIKOA ALDATZEKO TRESNA

Ez dugu nahi egiten ari denaren piezak berrantolatzea mugatzen den Agenda bat, pobrezia, desberdintasuna eta ingurumenaren suntsipena eragiten duten kausak zalantzan jarri gabe.

Agenda eraldatzaile bat nahi dugu, eredu ekonomikoa aldatzeko premia agerian jarriko duena, eta benetan aldaketa sakonak eragingo dituen jarduteko eta gobernatzeko moduetan.

Agenda horren ezarpenak **pertsonen ongizatean eta planetaren zaintzan** eragin behar du, inor atzean ez uzteko abiapuntuan oinarrituta. 2030 Agendak dakarren eraldaketa-proposamena handia eta asmo handikoa da. Hortaz, eraldatzeko duen grina benetan benetakoa dela azpimarratu behar da. EHSSa eredu aldaketa horren aldeko apustua egiten duen eragile anitza da.





**GIZARTE ZIBILAREN
INPLIKAZIOA BEHARREZKOA DA**

Erakundeok **gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa** sustatzen dugu, eta, horretarako, espazio parte-hartzaileak eta eragile anitzekoak sortzen ditugu, proposamen pluralekin aberasten direnak. Beti bezala, inplikazio hori beharrezkoa dela uste dugu, bizitza politikoaren demokratizazioa areagotzea, gizarte-partaidetzako hainbat eremutatik proposamenak sortzea erraztuz.

Gizarte zibilak, gainerako eragileekin batera, planak eta politikak lerrokatzea ahalbidetuko duten hausnarketa-prozesuetan parte hartzearen alde egiten dugu. Politika horiek, giza garapen iraunkorraren eta 2030 Agendaren ezarpenaren alde ekarpen positiboa egingo dutela bermatzeko helburuarekin.







TOKIKO BEGIRADA

2030 Agenda premia unibertsal eta global batetik planteatzen da, planetako pertsona guztien arazo komunak jorratzeko. Hala ere, garrantzitsua da Agenda tokikotik begiratzea, aipatutako premisa hori lortzeko **bertako politika publiko eraginkorrak** beharrezkoak baitira.

Agendaren arrakasta, neurri handi batean, estatuz azpiko eremuan aplikatzearen mende dago, bertan aplikatzen baitira planteatutako helburu gehienak.





HAUSNARKETATIK ABIATUTAKO ERAIKUNTZA PARTEKATUA

Bat gatzoz Administrazioak 2030 Agendaren proposamen bat eraiki duelako ikuspegiarekin, irizpide propioetan oinarrituta. Irizpide horietan, lantze-prozesuan presentzia eta hausnarketa partekatu handiagoa izatea gustatuko litzaiguke. Hala ere, oraindik garaiz gaudela uste dugu.

EHSSko erakundeok beharrezkoa ikusten dugu **administrazioarekin partekatutako agenda** bat lantzea, administrazio publikoak bere agenda garatzeko erabili dituen proposamenen eta oinarrien ezagutzan aurrera eginez eta hortik aurrera gehituz. Horretarako, abiapuntuaren diagnostikoa egitea, planak lerrokatzea eta lehentasunak ezartzea eskatzen dugu.


Abiapuntuko egoeraren argazki on bat oinarria izango da Agenda betetzeko lehentasunezkoenak diren politika publikoak definitzeko, tokiko eta nazioarteko eremuan, baita haren dimentsio guztietan (soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa eta gobernantzakoa).



ERAGIN POLITIKOA ETA ALIANTZAK

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeok bat gatoz administrazioarekiko zaintza edo alerta eginkizuna izan behar dugula, 2030 Agenda ezartzeko proposatzen diren plan eta politikek behar besteko **sakontasuna eta eragin eraldatzaile sozial eta ekonomikoa** izan dezaten bermatzeko. Itxurazko implementaio bat ekidin nahi dugu; GJHak ez lirateke soilik aurretik zeuden politika publikoak egokitze eta justifikatzeko aitzakia izan behar.


Era berean, uste dugu hainbat eragilerekin aliantzak egin behar ditugula, **esperientzia-posiziotik eta ezagutzatik** abiatuta, 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioa arrakastara eramateko beharrezkoak diren esparru guztien inplikazioa lortzeko.





ADIERAZLEAK ETA NEURKETA

Helburu bakoitzak adierazle argiak, komunak, zehatzak eta urratutako kolektiboen arabera bereiziak izatea sustatzen dugu EHSSko erakundeok. Helburu horien **lorpen-egoera** eta, hala badagokio, **ekintza-planak neurtu** ahal izateko.





FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

Administrazioak GJHak betetzeko duen erantzukizunaren ondorioz, **beharrezko baliabideak** bideratu behar dituzte gure lurraldean helburu bakoitzerako xedeak lortu ahal izateko. Baita pixkanaka murriztea ere, guztiz ezabatu arte, 2030 Agendaren helburuen aurkakoak diren politiketara bideratutako baliabideak.

Aurrekontuetan GJHak sartu behar dira, politiken koherentziaren eta lurralde-elkartasunaren ikuspegitik, baliabideak eta **gastu soziala** zuzen banatzeko, pertsona, familia eta kolektibo bereziki kalteberek euren eskubideak bermatuta izan daitezen, inor atzean ez uzteko.





Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

www.sareensarea.eus